



TicketBAI
GIPUZKOAN | EN GIPUZKOA

**TICKETBAI BALIOGABETZE FITXATEGIAREN
BALIOZTAPEN ETA ERRORE ZERRENDA**

2.1 bertsioa



AURKIBIDEA

1. SARRERA	2
2. BERTSIOEN KONTROLA	3
2.1. BERTSIOA 1.0	3
2.2. BERTSIOA 1.1	3
2.3. BERTSIOA 2.0	3
2.4. BERTSIOA 2.1	3
3. BALIOZTAPENAK	4
3.1. JASOTZE BALIOZTAPENAK	5
4. ERRORE ZERRENDA	6
5. FITXATEGIEN ETA ERROREEN KUDEAKETA	7
5.1. ERROREAK JAKINARAZTEA	7
5.2. FITXATEGIEN KONTSULTA	7
5.3. ERROREEN ZUZENKETA	8
6. OHARTARAZPENAK	9



1. SARRERA

TicketBAI BALIOGABETZE fitxategiak jasotzeko prozesuan, GFAk automatikoki balioztapen batzuk egiten ditu. Dokumentu honetan zehazten dira egiten diren balioztapen, horietako bakoitzari dagozkion erroreen tipifikazioa, eta errore horiei lotutako kodeak eta deskribapenak.



2. BERTSIOEN KONTROLA

2.1. BERTSIOA 1.0

- Dokumentua sortzea

2.2. BERTSIOA 1.1

- Jasotze balioztapenen errore kodeen aldaketa

2.3. BERTSIOA 2.0

- HURRENGO ATALAK GEHITZEA:
 - 5. FITXATEGIEN ETA ERROREEN KUDEAKETA
 - 6. OHARTARAZPENAK
- 012 · balioztapena ezabatzea
- 013 · balioztapena ezabatzea (Hala badagokio, zergadunari jakinarazitako ohartarazpena izango da)
- 008 · balioztapena ezabatzea
- 015 · balioztapena ezabatzea (Hala badagokio, zergadunari jakinarazitako ohartarazpena izango da)
- 016 · balioztapena ezabatzea (Hala badagokio, zergadunari jakinarazitako ohartarazpena izango da)

2.4. BERTSIOA 2.1

- 012, 013, 4104, 015 eta 016 kodeak ohartarazpen- koadroan sartzea
- 001 · balioztapenaren idazketa aldatzea
- 015 · ohartarazpenaren idazketa aldatzea
- 016 · ohartarazpenaren idazketa aldatzea
- 5053 · ohartarazpenaren sorrera



3. BALIOZTAPENAK

Balioztapen tipologia bakarra definitu da:

- **JASOTZE BALIOZTAPENA:**
 - Zerbitzuari eskatutako datuak balioztatzeko, eta etiketen egiturak eskema betetzen duela ordenari, nahitaezkotasunari, formatuari, luzerari eta balioak aldez aurretik ezarritako balio batzuekin bat etorri behar duen egiaztatzeko, hala badagokio.
 - Jasotze balioztapenak ez gainditzeak fitxategia baztertzea dakar beti.
 - Jasotze balioztapenak gainditzeak fitxategia jasotzea dakar.



3.1. JASOTZE BALIOZTAPENAK

Balioztapenaren deskribapena	Errore kodea
Bezzeroaren aldetik Igorlearen ziurtagiria ez aurkeztua, homologatu gabea, baliogabetua edo iraungia	001
Fitxategiak XSD eskema bete behar du	002
Abizenak eta izena edo sozietate izena [ApellidosNombreRazonSocial] eremua ezin da hutsik egon	004
Jasotze zerbitzua erabilgarri ez badago, eragiketa geroago errepikatu behar da	006
Igorlearen ziurtagiria baliagarria izan behar da faktura egiten duenarentzat	007
Mezuaren tamainak ez du gainditu behar baimendutako tamaina	017
Baliogabetzen den fitxategiak aurretik sisteman jasota egon behar du.	018
Baliogabetzen den fitxategiak ez da aurretik baliogabetuta egon behar	019



4. ERRORE ZERRENDA

ERREFUSATZEA DAKARTEN ERROREAK	
Kodea	Errorearen deskribapena
001	Bidaltzailearen ziurtagiria okerra: ez aurkeztua, errebokatua, ez-homologatua edo iraungia
002	Fitxategiak ez du betetzen XSD eskema
004	Derrigorrezko datua falta da edo datua ez da zuzena
006	Jasotze zerbitzua ez dago erabilgarri. Egin berriro eragiketa geroago
007	Igorlearen ziurtagiria ez da baliagarria fakturaren jaulkitzailearentzat
017	Mezuaren tamaina ez da zuzena: baimendutako tamaina gainditu da
018	Sisteman ez da datu informatuekin lokalizatu baliogabetu nahi den fitxategia (<i>Jaulkitzailearen IFZ [NIF de emisor], Faktura seriea [SerieFactura] halakorik bada, Faktura zenbakia [NumFactura] eta Fakturaren jaulkipen data [FechaExpedicionFactura]</i>) * OHARRA: eremuak identifikatzeko, baliogabetzea nahi den fitxategiaren karaktere berberak erabili behar dira
019	Baliogabetu nahi den fitxategia aldeztatik baliogabetua dago



5. FITXATEGIEN ETA ERROREEN KUDEAKETA

5.1. ERROREAK JAKINARAZTEA

TicketBAI baliogabetze fitxategiak balioztapenen bat gainditzen ez duenean, errorearen berri emango da ondorengo taulan azaltzen den komunikazio kanalaren bitartez.

ERROREA JAKINARAZTEKO KOMUNIKAZIO KANALEA

Modu SINKRONAN komunikatuko dira, XMLren erantzunaren bidez.

5.2. FITXATEGIEN KONTSULTA

Jasotako TicketBAI BALIOGABETZEko fitxategi guztiek harrera-balidazio guztiak gainditzerakoan, erreferentzia egiten dioten fitxategi guztiak baliogabetuko dituzte. Kasu horretan, aipatutako fitxategien egoera «baliogabetuta» egoerara igaroko da.



5.3. ERROREEN ZUZENKETA

Errorea zuzentzeko ekintza errore motaren araberakoa izango da, hurrengo taulan adierazten den moduan.

ERRORE MOTA	KODEA	ERROREAREN ZUZENKETA
Bidalketa ZIURTAGIRIARI lotua Edo bidalketa-ziurtagiriari IDENTITATEARI lotua	001 007	Errorea zuzendu ondoren BALIOGABETZE TicketBAI fitxategia BIRBIDALI
HARRERA ZERBITZUA ez dago erabilgarri	006	
TicketBAI ALTA fitxategiaren EGITURARI edo GUTXIENeko EDUKIEI lotua	002 004 017	Konponketa fitxategia ZUZENDU- BALIOGABETZE zerbitzuaren bidez bidali
Baliogabetzeko fitxategia EZ da aurkitu	018	Konponketa fitxategia ZUZENDU · BALIOGABETZE zerbitzuaren bidez bidaltzea, baliogabetu nahi den fitxategiaren eremuak behar bezala identifikatuz. Edo, hala badagokio, atzera bota duten TicketBAI altako fitxategiko erroreak zuzentzea, eta TicketBAI baliogabetzeko fitxategia BERBIDALTZEA
Baliogabetzeko fitxategia JASOA	019	<i>Akziorik ez</i>

6. OHARTARAZPENAK

Fakturen jaulkitzaileei jasotako fitxategietan detektatu diren beste gorabehera batzuen eta TicketBAI betebeharra ez betetzea ekar dezaketen berri emango zaie, baita, hala badagokio, egin beharreko ekintzen berri ere.

OHARTARAZPEN MOTA		ALERTEN KUDEAKETARAKO EGIN BEHARREKO EKINTZAK
012	TicketBAI softwarearen ALTA-INSKRIPZIOA EZ da baliozkoa	Hornitzailearekin harremanetan jarri eta softwarea erregistratu etorkizuneko bidalketetarako <i>* Zerga-betebeharrak egiaztatzeke espediente irekitzea ekar dezake.</i>
013	GAILU IGORLEAREN ERREGISTROA onartzea falta da	Gailu igorlea Egoitza Elektronikoa bitartez Eregistroan onartu. <i>* Gailua baimentzeko aurreikusitako hilabeteko epeetik aurrera, zerga-betebeharrak egiaztatzeke espediente bat hasi ahal izango da, eta horrek, gainera, fitxategia EZABATUA egoerara aldatzea ekar dezake.</i>
4104	Jaulkitzailearen IFZ Gipuzkoan erregistratutako zergadun batena izan behar da	Gipuzkoako zergapekoa izanez gero, erroldan alta eman behar da. <i>* Dagokion zentsu-aitorpena aurkezteke epea amaitzen denetik aurrera, zerga-betebeharrak egiaztatzeke espediente bat hasi ahal izango da, eta horrek, gainera, fitxategia EZABATUA egoerara aldatzea ekar dezake</i>
015	ZIURTAGIRI BIDALTZAILEA iraungita	Hurrengo bidalketetarako ziurtagiria berritzea <i>* Iraungitze-datatik epe bat igaro ondoren, 001 balioztapenak baztertu egingo du</i>
016	ZIURTAGIRI SINATZAILEA iraungita	Hurrengo bidalketetarako ZIURTAGIRIA BERRITZEA <i>* Iraungitze-datatik epe bat igaro ondoren, ZUZENDU bitartez zuzendu beharreko 008 balioztaopen errore abisua izango da. * Zerga-betebeharrak egiaztatzeke espediente irekitzea ekar dezake.</i>
5053	ZIURTAGIRI BIDALTZAILEA aurki iraungiko da	Hurrengo bidalketetarako zuzendu behar da